



**Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5**  
Arkitektoa

## Gelaren desordena

**N**erabearen logela ikus-  
tea besterik ez dago  
ziurtasunez baieztat-  
zeko espazioaren eta  
gure egoera emoziona-  
len artean lotura zuzen  
bat dagoela, gaineratu dit terapeu-  
tak. Norbanakoak bere ingurua egoki-  
tu eta aldatzen omen du aldar-tearen  
arabera eta egiten duenaz ondo jabetu  
gabe. Bizi garen espazioak inkontzien-  
tearen adierazpiderako mihiseak dire-  
la uler daiteke. Hori esanda ere, nik da-  
kidala, prozesu terapeutikoan ez da  
norberaren gela edo etxea ikerketagai  
izaten, baina gauza jakina da, psikolo-  
gian, gure izaeraren isla gure ekintze-  
tan irakur daitekeela –leku, kolore edo  
materialen aukeraketan–. Eta, beraz,  
espazioan detektatu daitezke une bate-  
an bizi dugun egoera zehatz baten  
markak. Horregatik, espazioak egoera  
asko irudikatzeko aukera du, objektu  
eta altzarien kokapenak barne tentsio  
edo energiari jarraitzen diolarik; eta  
espazio moldaketen atzean egon dai-  
tezkeen keinuak irakurtzeko gai бага-  
ra, informazio iturri izan daiteke, gure

bizimoduaz aparte, eta gure egoera  
emozionalaz hitz egingo digu. Seguru  
gertatu zaizuela gela txukuntzearekin  
batera aldar-tea aldatzea, edo bizi egoe-  
ra kaotiko batean murgildurik izan eta  
gela gure kaosaren erreflexu izatea eta,  
gainera, kaosean gauden bitartean txu-  
kunketari aurre egiteko indarrik ez  
aurkitzea. Zeinen argi irakur daitekeen,  
adibidez, pertsona adindu baten ande-  
atze mentala etxeko gauzen antolake-  
tan arreta jartzen badugu. Izan ere, es-  
pazioaren ezaugarria da gertaera  
horien guztien testigu dela besteen be-  
gietara, txibatoa dela alegia.

Bizi garen eta gure sentitzen ditugun  
tokiak gure espazio bitalaren parte di-  
ra. Oharkabea burutzen ditugun gau-  
zak pentsamendu arrazionaletik kan-  
po dira, gure kontroletik kanpoko  
ulermena da, izaerari jarraitzen dion  
estimulu bat bezalakoa. Bide horreta-  
tik, interesgarria gerta daiteke ingura-  
tzen gaituen espazioa gure gorputza-  
ren luzapen bat bezala irudikatzea,  
beste organo bat bailitzan. Lotura orga-  
nikoa sortzen da inguruko gauze-  
kin eta tokiekin, materialekin eta ehundu-

rekin harremanean jartzen garenean.  
Gorputz organikoaren eta objektu eta  
material inorganikoen arteko elkarritz-  
keta, batak besteari eragiten eta alde-  
rantziz.

**Ingurunearekin eraikitzen dugun  
harremana gure izaeraren agertoki  
da, hortaz;** askotan esan ohi da bi per-  
tsona mota daudela, etxeko gauzak or-  
denatuak dituztenak eta desordenan  
bizi direnak; edo etxeko liburutegiaren  
liburuen antolaketa modua pertsona  
izaera desberdinen isla dela. Halako or-  
dena, horrelako pertsonalitatea. Objek-  
tuak non uzten ditugun eta nola anto-  
latzen ditugun, giza harremanetan  
ika-mika tipikoa diren arren, ez lirate-  
ke epaitu behar –ez dago ona edo txar-  
ra den modu bat, modu desberdinak  
baizik– eta erabaki txiki horien atzetik  
gure emozioak edo izaerak bildurik di-  
ra. Gertaeren eta egoeren euskarri den  
espazioak ahalmen komunikatzaile  
boteretsua izan dezake gu eta besteon  
artean. Agian ikerketa alor berri bat  
abian jartzeko unea da: psikoarkitekto-  
arena. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA